

LANERATZEA ETA ENPLEGUAREN KALITATEA
SUSTATZEKO BERRIKUNTZA PROGRAMA
ARAUTZEN DUEN FORU DEKRETUAREN
PROIEKTUAREN AURRERAPENAREN
AURRETIAZKO KONTSULTARAKO
IZAPIDEAREN EMAITZEI BURUZKO MEMORIA

Indarrean dagoen araudia eta, zehazki, Bizkaiko Foru Aldundiaren izaera orokorreko xedapenak prestatzeko prozedura arautzen duen 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuan xedatutakoa betetzeko, otsailaren 21ean argitaratu zen laneratzea eta enpleguaren kalitatea sustatzeko berrikuntza programa arautzen duen Foru Dekretuaren proiektuaren aurrerapenari dagokion aurretiazko kontsulta publikoetarako izapidea, Bizkaiko Foru Aldundiaren web orriaren izapideen atalean

Goian deskribatutako proposamenari buruz herritarrek egoki deritzen iradokizun eta ekarpenak idatziz aurkezteko 15 eguneko epea amaituta, jaso diren proposamenei buruzko txostena egin behar da.

Horri dagokionez, jasotako datuen artean honako hauek nabarmentzen dira:

- Kontsulta honetan 8 erregistro daude, nahiz eta datuak haietako bitan baino ez agertu.
- Bi erantzun horietatik, gizon batek bat eman du, eta bestea, berriz, emakume batek.
- Parte-hartzailearen sailkapenari dagokionez, bat partikularra da; bestea, berriz, erakunde bat.
- Hasierako galderari dagokionez (ea beharrezkotzat jotzen den laneratzea eta enpleguaren kalitatea sustatzeko berrikuntza-programa bati laguntza ematea), baiezko erantzun bat jaso da, eta ezezko erantzunik ez.
- Proposamena foru dekretu bidez arautzeko garrantziaren balorazioan, erantzunen batezbesteko aritmetikoa 5etik 5 izan da.

MEMORIA SOBRE LOS RESULTADOS DEL
TRAMITE DE CONSULTA PÚBLICA PREVIA DEL
AVANCE DEL PROYECTO DE DECRETO FORAL
REGULADOR DEL PROGRAMA DE
INNOVACIÓN POR LA INTEGRACIÓN LABORAL
Y POR LA CALIDAD EN EL EMPLEO.

En cumplimiento de lo establecido en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia de 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia, con fecha 21 de febrero se publicó en el apartado de procesos de tramitación de la web de la Diputación Foral de Bizkaia el trámite de consulta pública previa del avance del proyecto de Decreto Foral regulador del Programa de innovación por la integración laboral y por la calidad en el empleo.

Una vez transcurridos los 15 días preceptivos para que la ciudadanía presente por escrito las sugerencias o aportaciones que entienda conveniente sobre la propuesta normativa antes descrita procede elaborar la presente memoria relativa a las propuestas recibidas.

En este sentido los datos más destacables recogidos son los siguientes:

- Hay 8 registros en esta consulta, aunque sólo constan datos en 2 de ellos.
- De las 2 respuestas, 1 ha sido completada por un hombre y 1 por mujer.
- En cuanto a la distribución por perfil de participante, 1 es un particular y 1 es institución.
- En cuanto a la pregunta inicial relativa a si se considera necesario el apoyo a un programa de innovación por la integración laboral y por la calidad en el empleo se ha recogido 1 respuesta positiva y ninguna negativa.
- En la valoración de la importancia de regular esta propuesta mediante Decreto Foral, la media aritmética de las respuestas completadas ha sido de 5 sobre 5.



- Dekretuan jaso behar diren alderdiei dagokienez, ez da ekarpenik egin.
- Azkenik, foru dekretuaren proposamenari irtenbide alternatiboak bilatzeko aukerari dagokienez, ez da erantzunik jaso.
- En cuanto a los aspectos a recoger en el Decreto no se han realizado aportaciones.
- Por último, sobre la posibilidad de buscar soluciones alternativas al Decreto Foral propuesto, no se ha recibido ninguna aportación.

Jaso diren erantzunetatik ondorioztatzen da ez dagoela eragozpenik dekretua izapidetzeko, eta ez dela erregistratu dekretua idazteko kontuan hartu beharreko ohar edo proposamenik.

Beraz, egokitzat jotzen da testu arauemailearen proiektua idaztea, izapidetzen jarraitzeko.

Tras las respuestas recibidas se puede concluir que no se han recibido objeciones a la procedencia de la tramitación del Decreto.

En consecuencia se estima oportuno proceder a la redacción del proyecto de texto normativo a fin de continuar con la tramitación.

Bilbon, 2017ko ekainaren 9an.

En Bilbao, a 9 de junio de 2017.

Enplegua Sustatzeko Zuzendari Nagusia
El Director General de Empleo

Fdo. Alfonso García Alonso